

Ametsen Eorrera
2022

Ilustrazioa:
Olatz Alkorta

Testuak:
Felipe Murillo

Maketazioa:
AtaBe Irudi Kudeaketa

Lege gordailua:
LG D 227-2022

Azpeitiko Udalak, herriko ikastetxeek, hezkuntza ez formaleko eragileek eta herrigintzakoek, urteak daramatzate Azpeitian herri hezitzailearen filosofia sustatzen. Gai ezberdinak landuz eta egitasmoak abian jarritzaz Azpeitia Herri Hezitzailea eraikitzeke elkarlanean.

Hezkuntza, etxean hasi, eskolako lau hormak gainditu eta herrira zabaltzen den continuum bat bezala, bere osotasunean ulertuz, herria bera eremu hezitzaile moduan eraikitzeke da helburua. Balio hezitzaileak sustatzeko ardura, ardura partekatu moduan ulertuz.


Norabide horretan, ur tanta bat gehiago izatea nahiko genuke esku artean daukazun ipuina. Tantaz-tanta egiten baita itsasoa. Azpeitia Herri Hezitzailearen filosofiaren muina eta bere balio hezitzaileak, ipuin batean bildu ditugu, herrikide ditugun Felipe Murillo idazlea eta Olatz Alkorta ilustratzailearen lan eta sormenari esker.

Ipuinak kontatzea haur eta helduek elkarbanatzen duten haurtzaroko momentu magikoenetako bat izanik, zuen hurrekin ipuin honetaz gozatzeraz gonbidatu nahi zaituztegu.

Alaia eta Anderren urtebetetze eguna da gaur. Ez da erraza mendian kandelak piztuta mantentzea, baina lortu dute desio bat eskatu eta putz egitea. Nahiak ere baditu bere kandelak, hiru urte dira Txinatik heldu zela. Andoitz txikiak ere putz egin nahi du anaia ikusita, eta piztu diote kandela bat sudurrekoak kentzen dizkioten bitartean. Zintz!

Gurasoek festa bat antolatu dute Goenako zelaietan eta haien lagun batzuk gonbidatu dituzte. Abdu eta bere ama han dira, eta baita Ekai eta bere gurasoak ere. Tira, Ekairen gurasoak ez dira bakarrik etorri. Ikernereren sabelean dago Amets eta aurki besarkatu ahal izango dute.





- Adi! Zer da hori? –Ekaik zerbait entzun du urrunean.
- Txalaparta dirudi –erantzun dio amak.
- Txalaparta? Zer da txalaparta? –galdetu du Andoitz txikiak.
- Txalaparta da egurrezko oholez osatutako aspaldiko musika instrumentu bat – azaldu die Anderren amak. –Makil batzuk kolpatuz ateratzen du soinua.
- Hemen ere badago txalaparta orduan – esan du Alaiak alboan zuen hesia kolpatuz. Bere aitak jolasa jarraitu dio eta txalaparta soinua egiten hasi da. “Ttakun, ttakun, ttakun...!”
- Eta nondik dator soinua? – galdetu du Abduk.
- Herri aldetik datorrela dirudi – belarri fina dauka bere amak.
- Nondik datorren ikusi nahi dugu! Nondik datorren ikusi nahi dugu!



Haur guztiak ados jarri dira. Txalapartaren bila abiatuko dira!!! Hala ere, handik alde egin aurretik badute zeregina.

–Mendia garbi utzi beharko dugu herrira jaitsi aurretik – iradoki dute gurasoek. Erronka bota diete hurrei:

–Koloretako poltsak hartu eta ea nork jasotzen duen zabor gehien. Azken bizkotxo zatia dago jokoan!

Agudo mugitu dira haurrak poltsen bila. Ikernek ere bizkotxoa nahi du eta abiatu da poltsen atzetik, baina Amaiak geldiarazi du.

–Lasai, maitea. Nik jasoko ditut bion parteak. Zu eser zaitez, haurdunaldiaren azken egunetan ez zaizu eta makurtuta ibiltzea komeni.



Oihuka hasi da Nahiaren aita:

–SARDINA BAT! BI SARDINA!

–Aita, ez abestu hain ozen. Horrela ezin dugu entzun txalapartaren doinua. Adi-adi doaz haurrak. Gurasoak ere bai, baina arreta beste leku batean jarri dute.

–Errepidetik jaisten ari garela autoen soinuei ere adi egon behar dugu.

–Kontuz bidegurutzean! Egon gure zain!


Hara! Auto bat geratu da eta bera dago zain gure lagunak gurutzatu arte.

–Eskerrik asko! – oihukatu diote gidariari.

–Zer gutxiago! – esan die bozina hotsa astinduz – . Ez dago zebra-biderik baina, hala ere, zuek izan beharko zenukete lehentasuna.



“Utzi bakean, oinezkoak kalean! Utzi bakean, oinezkoak
kalean!” oihupean gurutzatu dute bidea familiek.
Herrigunera iristear daude eta onena Xanjuandei aldean
begiratzea dela pentsatu dute. Txalaparta doinuak handik
ote datoz?



Bi gizon topatu dituzte kalearen alde banatatik hitz egiten. Alaia gerturatu da lehena:

–Aizu, badakizu nondik datorren soinu hori?

–No te entiendo —erantzun dio gizonetako batek sorbaldak estutuz.

–Txalapartaren soinua... —Alaiak ez du amore eman.

–Lo siento pero no sé euskera y no sé si os puedo ayudar. Preguntádselo a mi compañero, él sabe euskera y me suele traducir. Estoy aprendiendo, baina pixkanaka.

–Hara! Aitona Diegok bezala. Gurekin hitz egiteko euskaraz ikasi zuen —esan zuten bi anaiek.

Beste gizonari zuzendu zaio orduan Alaia:

–Eta zuk, badakizu nondik datorren soinua?

–Alde zaharretik dirudi.


Anderrek eskerrak eman, eta beraiekin joateko gonbidapena luzatu die:

–Badakizue zer den txalaparta?

–Ez —erantzun dute gizonek harriturik—. TXA-LA...zer?

–TXA-LA-PAR-TA. Ba lagundu gaitzazue soinuaren jatorria aurkitzen.

Zatozte gurekin!







Alde zaharrera bidean, errepidea gurutzatzen hasi dira lurpeko pasabidetik. Nahiari ez zaio gustatzen hortik igarotzea, ilun dagoela dio, eta sarreran geldirik geratu da.

–Segi zuek.

–Ez zaitugu bakarrik utziko –esan diote besteek–. Denok batera igaroko dugu.


–Ilun egoten da eta beldurra ematen dit –berretsi du Nahiak.

–Eskura ditugun mugikorren argiak piztuko ditugu eta ikusiko duzu nola argituko den.

Gurasoei egoera azaldu eta mugikorren linternak martxan jarri dituzte.

–Badakizue zer? –Nahiaren gurasoek ideia bat izan dutela dirudi–. Egunen batean berriro margotu behar genituzke horrelako leku ilunak. Orain dela urte batzuk egin zuten moduan, marrazki batzuk aukeratu, pintura potoak hartu eta denon artean koloreztatu behar genuke iluntasun hau.

–Nik ipurtargi moreak margotuko nituzke, gauean piztu eta argia egin dezaten –esan du Nahiak pasabideko irteeran.



Kalearen beste aldetik, eskua altxatuz agurtu ditu Ibrahimak. Orgatxoa bete arropa eta gailu herrian zehar saltzen dabil, eta haurrek geratu egin dute zerbait jakingo duelakoan.

–Agur!!! –esan die.

–Itxaron, Ibrahima. Alde zaharretik zatoz? –galdetu dio Ekaik.

–Bai. Zergatik?

–Txalapartaren bila gabiltza. Entzun duzu musika? Nondik datorren jakin nahi dugu –Alaiak ez du amore emateko asmorik.

–Errebaletik nator eta han ez dut ezer ikusi, baina entzun dut, bai. –esan die Ibrahimak–.

Arraroa da. Nire herrian horrelako erritmoak danborrekin egiten ditugu eta jendea biltzeko deiak izaten dira.

–Zure herrian ere horrelako doinuak jotzen badituzue, lagun gaitzazu orduan doinuaren jatorria aurkitzen. Denon artean eramango dugu orgatxoa eta bidean lagunduko dizugu saltzen.

Beraiek baino handiagoa den karroari heldu, eta txandaka eramango dutela adostu dute.







Txalaparta soinuak jarraitzen du herrian zehar, eta gure lagunak nora jo ez dakitela daude. —Txalaparta aspaldikoa bada, aspaldiko jendeari galdetu diezaiokegu —izan da Ikernereren ekarpena.

—Nor da aspaldiko jendea? —galdetu du Andoitz txikiak.

—Gure helduak. Ziur nago egoitza kanpoan daudenek badakitela zerbait.



Hakun
Hakun

San Martin egoitzara iritsi eta Juanitarekin egin dute topo. Kopletan agurtu ditu:

*Hau da ezuste zoragarria
gazteak hona biltzea
aspaldikoek eskertzen dugu
zuek gu bisitatzea.*

–Laguntza bila gatoz. Txalaparta doinuaren atzetik gabiltza arratsalde osoan zehar baina ez dakigu nondik datorren. Ideiarik bai, Juanita? –galdetu du Amaiak.

*Duela urte asko herrian
festen berri emateko
bazen ohitura zoragarri bat
musika zuen tarteko
kanpai hotsez gain egur soinuak
plazan jarrita entzuteko
Oinatz ta Izarraitz mendi magalak
doinuz ederrez janzteko
txalaparta bi jartzen zituzten
elkarri hitz egiteko.*

Ahots dotorez kantatu du Juanitak.

–Eskerrik asko, Juanita! Bihar etorriko gara lasaiago eta kontatuko dizugu gaurko berri. Goazen agudo plazara!



Plazara bidean obretan da pasabidea. Gure lagunak sarreran gelditu dira beste aldekoak igarotzeko zain.

—Ez gara denok kabitzen. Pasa zuek lehenengo —oihu egin die Nahiak.

—Ez, lasai! Presa zenutela dirudi. Zuek igaro arte zain egongo gara —entzun dute beste aldekoen ahotik.

—Benetan, etorri zuek aurrena —iradoki die Abduk gurasoak oraindik pasabidera iritsi ez direla ikusita.

—Guk denbora gehiago behar dugu eta zuek lehenengoak izatea izango da onena —etorri da bueltan erantzuna.

Azkenean ez dute elkar ongi ulertu, eta bi taldeak hasi dira beste aldera igarotzen. Erdi-bidean topo egin dute. Txolarteko lagunak ez dira ba! Eta txalaparta doinuei segika dabiltza haiek ere!






–Egoitzako Juanitak kontatu diguna kontuan hartuta, plazara gindoazen erantzun bila — azaldu die Alaiak.
–Elkarrekin bila dezakegu txalaparta, nahi baduzue –proposatu die Abduk.
–Lasai. Zuen atzetik joango gara, baina gure martxan. Ezin zaituztegu jarraitu korrikan –adierazi die boluntarioak.
–Bada orduan guk motelduko dugu abiadura. Garrantzitsuena txalaparta hotsa nondik datorren asmatzea da eta horretarako belarri gehiago bagara, askoz hobe!

Guraso guztiak ados daude Abduren amak esandakoarekin eta buruarekin baieztatu dute.
–Entzun! –esan du Nahiaren aitak–. Txalaparta doinuaren abiadura ere makaltzen ari da. Erritmo lasaiago batean ere zein doinu ederra ateratzen duen!
Ttaaaaa-kuuuuun, ttaaaaa-kuuuuun...







Herri
Hezitzailea



–Hemen ez dago ezer!

Nekatzen hasiak dira gure lagunak. Herriko plazan ez da musikaririk ageri, eta Sanagustinen ez dago kanpai hotsik. Txalaparta soinua ere, pixkanaka makalduz eta itzaliz joan da. Borobilean eseri, eta denen artean batzarra egitea erabaki dute nora jo adosteko.


–Juanitak esan digunez, hemendik entzun beharko litzateke –dio Abduk.

–Baina jotzeari utzi badiote ezin dugu doinua jarraitu

–Ikernereri ez zaio gaizki etorriko atsedeen apur bat.

–Ideia bat daukat. Altua den lekuren batera igo behar genuke eta urrutira begiratu, ea zerbait ikusten dugun. Bestela herrian bueltaka ibili gaitezke ezer topatu gabe –proposatu du Amaiak.

Denak ados daude. Ingurura begiratu, eta udaletxeko goialdera igotzea iruditu zaie aukera onena.



Handik herriaren zati handi bat ikusten da. Bakoitzak ingurune bat aukeratu du bila aritzeko, eta halako batean...

–Han dago! Han dago!

Abduk behatzarekin mendi aldera seinalatu du. Gainontzekoak Abdurengana inguratzearekin batera, berriro entzun da txalaparta doinua. Inoiz baino azkarrago gainera. Tta-kun, tta-kun, tta-kun, tta-kun...!

–Komuntzo baserriaren ondoan. Hor daude txalapartariak! Goazen zelaian gora –Alaiak gertu ikusten du aurkikuntza.

–Nik ezin dut zelaian gora joan. Gurpildun aulkian ezinezkoa zait –adierazi die Maria Luisak penaturik.

Izarraitz magalean dute baserria Anderren familiakoek ere eta ondo ezagutzen dituzte paraje horiek.

–Bidetik igoko gara orduan. Nik badakit nondik den. Goazen!





Maldan gora doazela negarrez hasi da Alaia.

–Ooooo...Zer gertatzen zaizu? –galdetu dio Nahiak.

–Triste jarri naiz. Hilerri aldamenetik pasa garenean amaxorekin gogoratu naiz –erantzun du negar zotinka.

–Eta amaxok triste jartzen zaitu? –Andoitzek ez daki iaz galdu zutela ama.

–Duela urtebete hil zen eta haren hutsune handia sumatzen dut.

–Nire amona ere hilda dago, baina gure aitak esaten du harekin bihotzez gogoratzen garen bakoitzean, bizi-bizi dantzan ibiltzen dela taupa den erritmoan –teorizatu du Nahiak.ren amaierara.

–Ba taupadak asko azkartu zaizkigu aldapa honetan. Fandangoa dant zatzeko moduan izango dira gure arbasoak –Nahiaren aitak, atzetik harrapatu ditu eta alaba eta laguna besarkatu ditu.




Barretxoa atera zaio Alaiari.

–Eta guk ere besarkada bat ematen badizugu?

Hobeto sentituko zara? –galdetu dute besteek.

–Besarkadetan tristura banatzen baduzu, agian arinagoa izango da. –esan dio aitak.



Onarpen keinu bat egin du Alaiak, eta denak besarkatuta iritsi dira aldaparen amaierara.



–Aitona Martin! Amona Maria! Zuek zineten eta! –oihukatu du Ekaik.

–Zer egiten duzue hemen? A ze sorpresa! Ez nekien txalaparta jotzen zenutenik.

–zur eta lur geratu da Ikerne bere gurasoak ttakunka ikusi dituenean–. Zertan ari zarete?

–Ai! Urte asko baditugu ere, oraindik sorpresak emateko sasoian gaude. Festarako deia egiten gabiltza, herrian garai batean egiten genuen bezala –dio barrezka aitona Martinek.

Andoitz txikiak gustura entzun du festa hitza:

–Eta zergatik egin behar dugu festa?

–Bai, zer ospatzen dugu? –galdetu dute gainontzeko umeek.

–Aurki beso artean izango dugun Ametsen etorrera –kontatu die amona Mariak–. Bederatzi hilabetez ikusi dugu Ikernereren sabela hazten, eta gaurko ilargi beteak eta nire sorgin senak diote ez dela askorik falta aurrez aurre eza-gutu ahal izateko.

–Gainera, ba al dago
bizitza ospatzea baino
ezer ederragorik?

Gora bizitza!

–GORA!



Gau hura festa bat izan zen, bizitza ospatzeko aitzakia bat. Erritmo desberdineko doinuek bat egin zuten eta gau horretako dantzarik ederrenaren ondoren Amets munduratu zen gure lagunaren besoaren artera.





